

Zuhotza  
euskaraz alkaratu  
guz deba

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 159. alea - 2012ko urtarrila



# Malkoen berotasuna, Saharan




**multiópticas UZURI**

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**multiópticas Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAITZEN



**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel./faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Edurne: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA  
20820 DEBA (GIPIZKOA)

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482  
ase.deba@teletel.es

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 39

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Menua  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi Kalea, 9  
Tel. 943 192 485 - 943 641 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**MAZZANTINI**  
TABERNA

Sokaslan, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 192 432

**BOKATAK - PINTXOAK**  
ETA GIRO ONA

Informatika  
Tresneria  
informatikoa

**JL**

Elektronika  
Osagai  
elektronikoak

Mazpe kalea, 7 - Behea  
20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 666 939 601

e-mail: jl@informatika@elektronika.e.telefoniko.net

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**

Zuhatza Euskara Elkartea

**Erredakzio taldea:**

Goizane Aizpurua,  
Mikel Aizpurua,  
Koldo Aperribai,  
Izaro Aulestiarte,  
Nagore Dorronsoro,  
Lukax Dorronsoro,  
Xabier Laka,  
Migel M.Lekube (Lutxo)  
Ina Oiartzabal eta  
Eider Zulaika

**Azaleko irudia:**

Debako Sahararen Aldeko Gazteak

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta  
Juan Mari Gurrutxaga  
Tlfnoa.: 943 19 13 83  
943 19 26 94

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Banaketa arduraduna:**

Juanma Oiartzabal

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.*

**ARGITARATZAILERAK**



**LAGUNTZAILERAK**



Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

# aurkibidea



8



16-17



Ander Salegi

Ander Salegi

**KOLABORAZIOA:** Mikel Aizpurua, "Bertsotan bai". **05 ALBISTEAK:** Zoro feria, iruditan; "Zubeltzu" III. Bertso Paper Sariketako irabazleak... **08-09 BERRIKETAN GAZTEA:** Euskararen Eguna, Uxue Alberdiri egindako elkarrizketa... **11-14**

Debako Sahararen Aldeko Gazteek egindako bidaiaren kronika irakurri nahi? **06-07**

**LABURRAK:** San Silbestre lasterketa, Olentzero eta Mari Domingiren bisita, Animadeba jaialdiko gortina lehiaketa... **16-17 ZERBITZUAK: 18**

## EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.

☎

943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2011 urterako.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## IZAN ZAITEZ GIDARI SOLIDARIOA!

Hogeita bi urte bete dira euskal preso politikoen aurkako sakabanaketa politika indarrean jarri zenetik. 21 preso hil dira urteotan, eta 16 senide eta lagunak galdu dute bizia bi estatuetak errepideetan, beren senide espetxeratuen bisita eskubi-dea bermatzen saiatzen ari ziren bitartean; 272 auto istripu izan dira orotara.

Horrez gain, hemen kontuan hartu beharreko beste zenbait datu:

-Astero-astero, familia bakoitzak batez beste 1.223 kilometro egin behar ditu senide/laguna ikusteko (5.299 km dira hilabeteetan, eta 63.599 km urte bakoitzeko).

-Astero, familia bakoitzaren batez besteko gastua 377 eurokoa da; hile-

an 1.637 euro dira, eta urteko gastua 19.653 euro ingurura iristen da.

Dispertsioa presoei zein haien senideei ezarritako zigor krudela dela ulertuta, Mutrikun hilean behin senideak Castellora eramateko gidari solidarioen taldea sortu genuen duela sei bat urte (Ondarroan Kordobara bidaiatzen duen taldea dago). Ahal dugun neurrian presoei zein senideei hurbiltasuna eta elkartasuna adierazteko modua dela iruditzen zaigu. Izan ere, eskaintzen dugun zerbitzu boluntario horren bitartez, senideei joan-etorriak errazten dizkiegu eta, besteak beste, haiek bidaietan gastatu ohi duten diru kopurua ere nabarmen murrizten da.

Sei urteotan 432 pertsona eraman ditugu furgonetan kartzeletara, errepideetan 108.000 km eginez. Baina sakabanaketa ez da amaitu, eta oraindik ere elkartasun bidaiak egiten jarraitu beharko dugu, halaberharrez.

Horregatik animatu nahi zaitugu zu ere txofer solidario izatera. Guztiok dakigu, azken batean, zenbat eta gehiago izan, orduan eta errazago egingo ditugula hileroko joan-etorriak. **Urtean behin eraman itzazu senide/lagunak bisitara astero egin behar duten bidean.** Kilometroz kilometro, askatasunerantz!!

Gurekin harremanetan jartzeko: [herekixak@hotmail.es](mailto:herekixak@hotmail.es).

*Mutrikuko txofer solidarioak*

## SUTONDOTIK

### BIHARAMUNAK, ORDEA...



**Lutxo  
Zenekorta**

Gauza ederra eta atsegina dira jaiak, batez ere, sendikoak elkarrengana biltzeko balio dutenak, joan berri zaizkigun Gabonak bezala.

Hala ere, osasunaren ikuspegitik begiratuta, elkarren antzik batere ez duten bi aurpegi erakusten dizkigu biharamunak: irribarretsua bata, umore onak utzi digun bizipoza; kopeta ilunekoa bes-tea, jan-edan gehiegiak eragindako ondoreza.

Gainera, neguan gaudenez, hotzak berekin dakartzan hotzeri, katarro, gripe eta abarrek ere eman ohi digute euren astindutxoak.

#### Zer egin?

**1.-** Gaupasa eta parranda asko samar egin duzula?

-Hasi berriro garaiz eta, egunero, ordu berdinean lotara joaten.

-Arin afaldu eta oheratu baino bi ordu lehenago.

-Jaiak ere, goizero, ordu berdinean eta

garaiz egin behar duzu.

-Ondo gosaldutxo behar duzu, kaloria batzuk gehiago hartzeko beldurrik gabe. Eguna luzea da eta indartsu heldu behar zaio.

**2.-** Koipe janariak gutxitu eta pasta-jakiak ugaritu: espagetiak, makarroiak,...

**3.-** Gazta zale amorratua zarela?

-Gazta berria hobe duzu osasunarentzat.

-Gazta zaharra jatekotan, oso zati txikia hartu, ogi puska handi batekin jateko.

**4.-** Katarroa harrapatu duzula?

-Egin tipula zuku on bat, 125 gr tipula eta ur pixkatxo batekin, eta hartu; baratxuri ale bat ere ondo etortzen da tipularekin. Mesede ederra egingo dizu.

-Edari naturalak hartu. Eskertuko dizu eztarriak.

On dagizueta eta ondo ibili neguko freskuran.



# MIKEL AIZPURUA

## BERTSOTAN BAI

Hor goiko argazkia 1913-14 urteen inguruan, Indalecio Ojangurenek atera zuen. Gure etxera, ordea, internet sorginak ekarri du. Askotan erabili izan ditut buruan gure aitak bizitzan zehar ikusi izan dituen aldaketak. Ume zela, Mutxiarteko iturritik ura garraiatzen zuen etxerako eta baratza ureztatzeko; Endoia aldeko baserririk urrunduenara kartak eramaten laguntzen zion osabari; oinez... Gaur egun, etxean iturria zabaldu eta nahi beste ur, hotz, epel, bero izan dezake eta Endoiako txokorik apartatuenera berehalakoan iristen dira mezuak inor inora mugitu gabe.

Geuk ere, ikusi ditugu teknologiak ekarritako berrikuntzak: paretan eskegitako telefono beltz haundia, poltsikoan darماغu orain, telefono, agenda, argazki-bideo kamara eta zertarako diren ez dakigun tramankulu gehiago dituela.

Teknologiak esku-eskura jartzen dizkigu urrutikoak; berriak, lagunak, ezagunak, ezagutu nahi genituzkeenak... Komunikazio modua ere aldatu digu. Orain gutxi zabaldu den ikerketa batek dio, teknologia berrien eraginez, azkarrago hitz egiten dugula. Minutuko hitz gehiago ahoskatzen omen dugu.

Hiztunaren premia edo entzulearena den, zaila da erabakitzen. Entzuleak mezua bera jaso nahi du ahalik eta azkarren; hiztunak, berriz, entzulearen atentzioa bukatu arte mantenduko ote duen beldurrez, arin bukatu

nahi du. Honekin batera, esan beharrekoa motzean esateko ohitura nagusitzen ari da. Twitterrek, esaterako, 140 karakteretan jartzen du adierazpenaren muga. Motz eta labur; hotz eta uzkur.

Abiadura biziko bide honetan, baina, bada lasaigune ederririk. Bertan, diskurtsoaren luzeraz goza dezakegu, goitik behera detailez betetako jario atsegina, zer esanak eta nola esanak eztei goxotan bizi diren tokia: Bertsoa.

Bertsotan ari dela, bertsolaria patxadaz ari da. Pentsatu ahala bota beharren beharraz, astia hartu behar du, kantatu bitartean, esan beharrekoa esateko eta ñabarduraz janzteko. Entzuleak, berriz, bertsolariaren egoeraren jakitun, arretaz eta pazientziatz entzuten dio bukaeraren leherketa iritsi arte.

Bestalde, bertsoak mesede gehiago ere egiten digu. Bestela, prosa arruntean, ezin esanez geratzen zaizkigunak bertsotan errazago jariatzen zaizkigu. Laguna nolako eta zenbateko lagun dugun; hil berri denari buruzko iritzi eta sentipenak... errimadun neurri zehatzean esatean lotsa gutxiago izaten du igorleak. Hartzaileak ere, errazago entzuten ditu entzun beharrekoak bertsotan badira.

*Teknologia aurrean  
luze edo laburrean  
ibil gaitzean bertsoa dugun  
gure lurralde librean.*



## “Familia saharaietan banatuta igaro ditugu egunak eta gure etxeetan baino hobeto sentiarazi gaituzte”

Astebete Saharan pasa ondoren, bertako familiak han utzi eta itzuli gara egunerokotasunera. Esperientzia bitxia izan da, batez ere espero ez genuena aurkitu genuelako desertuan. Familia saharaietan banatuta igaro ditugu egunak eta gure etxeetan baino hobeto sentiarazi gaituzte, etengabe erakutsi diguten gertutasunagatik.

Duela sei hilabete, irakasle batek erakutsitako bideo batek piztu zigun proiektu honetan murgiltzeko gogo. Sahara gertutik ezagutzeko aukeraz ohartuta abiarazi genuen proiektua, Gaztelekura joz.

Asmoa, aukera, nahia eta laguntza bagenituen, baina diru falta zen arazo nagusia. Arazo horri aurre egiteko dirua lortzeari ekin genion: bigarren eskuko azokak, uda-letxeak emandako lanak, Zubi-txiki eguneko jokoak prestatu eta era horretako lanak burutu genituen.

Bestalde, Saharautz elkarteak eta Udaleko Berdintasun Sailak emandako laguntza ekonomikoa ezinbestekoa izan da bidean. Astebeteren faltan eta dirua bageneukala, Beldur Barik -genero berdintasunaren inguruko txapelketa- irabazteko zortea izan genuen, Euskadi mailako saria erdietsiz.

Gauzak horrela, eta bidaia gauzatzeko txartel guztiak eskuan genituela, hara laguntza gisa eramateko ahalik eta material gehien pilatu genuen. Proiektua hasi genuenetik lortutako material guztia hogeiki kiloko poltsetan sartu eta Saharara abiatu ginen.

Bidaia luze eta nekagarri baten ondoren, gauaz iritsi ginen familietara. Hango familietan bost eta lauko taldetan banatu gintuzten eta gidari batzuk arduratu ziren talde bakoitzaren bere haimetara eramateaz. Bertan, harrera ikaragarria egin ziguten eta, nola ez, tea eskaini ziguten.

Goizero esnatu eta udaletxean elkartzen ginen gure taldekideekin, eta egonaldi guztian zehar gure gidari izan ziren Eneko sopolarra eta Mohamed palestinarrekin furgon-

netako erremolkerara igo, eta Saharako eskolak, ospitaleak, museoak... ezagutu genituen. Bai eskolak eta bai ospitaleak egoera kaskarrean aurkitu genituen, ospitaleak batez ere. Bestalde, bina palmera landatu genituen egon ginen haima bakoitzean, urte batzuk barru eta hilabete beroetan itzala izan dezaten.

Gure bidaiaren beste helburu nagusietako bat, gurekin Deban urtebete pasa zuen Gali bisitatzea zen. Oso harreman berezia izan genuen berarekin eta koadrilako beste kide bat izatera heldu zen. Saharara itzuli zenean pena handia hartu genuen denok, baina bere etxean eta bere familiarekin ikusi genuenean ohartu ginen zenbat botatzen zituen faltan.

Hala ere, gehien gustatu zaiguna familiekin igaro dugun denbora eta eman diguten tratua izan da; izan ere, oso harreman sendoak eraiki genituen gure artean. Askotan, beraiek ez zutena ere eman ziguten, eta izugarritzko borondatea eta afektua erakutsi ziguten une oro. Horregatik, bai haien zati eta bai guretzat oso hunkigarria izan zen agurra. Malko ugari isuri genituen, baina gauza bat pentsatuz itzuli ginen etxera: agur hori ez zen betiko, agur hori “beste bat arte” esateko soilik zen.

Bukatzeke, zorterik onena opa nahi diogu saharar herriari; beren egoera politiko eta sozio-ekonomikoa pixkanaka hobetzen joatea desio diegu. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiegu bidaia honetan laguntza eskaini diguten guztiei, hala nola Debako saharar elkarteari, gu laguntzeko egin duten guztiagatik; Mohamed palestinarri eta Eneko sopolarrari; Jon Amutxastegiri; Izenbeko Joxe Ramoni, bertan oso lagungarri izan zaigulako eta hona heldzean afari batera gonbidatu gintuelako; Iñaki Egañari eta Udaleko Berdintasun Saileko Yoana kideari; Gaztelekuari, bere laguntzarik gabe bidaia hau ez zelako posible izango, eta ahazten zaizkigun beste guztiei.

Debako Sahararen Aldeko Gazteak

**“Askotan, beraiek ez zutena ere eman ziguten. Izugarritzko borondatea eta afektua erakutsi ziguten une oro”**





## Malkoen berotasuna

Egunak joan, egunak etorri, badira 35 urte saharar herriak deserto idorrean errefuxiatuak dira.

Eguzkiak argitzen ditu egunak, nekatzean agurtzen du hondar agorra eta gaueko argiak gailentzen dira zeru beltzean, basamortuaren zaindari.

Bitartean, lurralde arrotz baina jada ezagun honetan bizirauten dute sahararrek, kaltetuentzako laguntzei esker. Aljeriako deserto jasangaitzenez sahararren bizi egoera benetan da atsekabez bete. Mendebaldeko Sahara Marokok du okupatua, eta lotsaren harresi delako murrak krudeltasunez inguratua. Erantzukizuna Espainiak du, baina ostrukak bezala jokatu ez du arazoarekiko erabakirik hartzen. Saharauen herrimina mingarria da Iparragirrek abesten zuenaren aldean, aberriaren eza. Euren lurretara itzultzeko desioa hain da amestua, ezen herritarrek kanpamentuetatik berehalakoan hanka egiteko prest baitituzte mailetak... hautsa hartzen. Tamalez, asko dira Aljeriak utzitako basamortu puskan ehortzitakoak.

Sahararrak behin-behineko omen daude babes hartuta erbestean, baina harrapatuak daude bertan. Bitartean, egunerokoan teak bideratzen ditu harremanak. Etxean apopilo abegikortasunez hartzen zaituztenez tea da hizketak bustitzen dituen edari apartsua, baita gosaldur, bazkaldu edo afaldu aurrekoa ere.

Euren hitzetan, edaten den lehen te basokadaxoa, bizitza bezain mingotsa izaten da, arrazoi faltarik ez dute bertako bizitza geurearen aldean samina baita. Horren murrizta da euren askatasuna, horren gogorra bizitza duin bat ezin garatzea... Bigarregoa, berriz, maitasuna bezalakoia da, ezitia eta goxoa. Azkenekoa, bizitzaren azken arnasa bezain arin eta leuna omen.

Hala ere, maitasunaren gozoa, islamak mingartua duela uste dut, emakumeentzako ez ezik gizonezkoentzako ere bai. Askorentzat heriotza sufrimendu etengabe baten amaiera da, aringarri eta leungarria; baina beste batzuentzat, bortitza, jasanezina da euren lur maite hartatik at, lautada lehor haietan azken arnasa ematea. Jasanezina, baina hala-beharrez jasan behar bertan nagusi baita, ezina.

Joanes Esturo Etxabe







Zoro  
Feria  
2012,  
IHUDITAN





## “ZUBELTZU” III. BERTSO PAPER SARIKETA



Hiru urte pasa dira, jada, Zubeltzu bertso paper sariketa antolatzen hasi ginetik eta bertso kopuruari begiratuta behinik behin, ausartuko gara esaten, egonkortzen ez ezik zabaltzen ere ari dela poliki-poliki: Gaztetxoan taldean 50 lanetik gora jaso ditugu eta gazteengan 18, beste urteetan baino baten batzuk gehiago; eta nahiz eta nagusien taldean kopuruak gora egin ez, joan den urteko kopuru berbera bildu dugu. Honenbestez, datozen urteetan, ildo beretik, gorantz egiten segitzea espero dugu.

Aurten ere, Zoro feri egunean banatu genituen Debako Udalaren eta Zuhatza Euskara Elkartearen artean antolatutako sariketari dagozkion sariak. Epaille lanetan aritu diren Mikel Aizpurua, Ibon Aranberri eta Iñigo Izagirrek hala erabakita, gaztetxoan (2000.ean jaiotakoak eta gazteagoak) lehenengo saria Ane Arrizabalagak lortu du, bigarren saria Maite Iglesiasek irabazi du eta hirugarrena, aldiz, Dorleta Aizpurua.

Gazteei dagokien kategorian (1996-1999an jaiotakoak), Josune

Arakistainen “Isladak” izenburuko bertsoak eraman du lehen saria. Laura Arriola eta Maider Oñederra gelditu dira bigarren eta hirugarren postuan, hurrenez hurren.

Helduetan, berriz, Zigor Agirre, Karlos Larrañaga “Palo” eta Joxe Angel Salegi “Lizarreta” izan dira sarituak.

Sariak banatzeko ekitaldian, Udaleko eta Zuhatzako ordezkariak ez ezik, nola ez, sariketan garaile izan zirenetako gehienak zein haien ingurukoak ere bildu ziren. Euskara Batzordeko Amaia Zinkunegik egin zituen aurkezpen lanak, eta epaille lanetan aritu den Iñigo Izagirre bertsolari eta zinegotziak, berriz, hainbat bertso bota zituen kategorian bakoitzeko hiru sariak banatu aurretik. Ondoren, sarituen bertso sortetatik aleren batzuk entzuteko parada ere izan genuen, egileen ahotik.

Saritutako lan guztiak liburuxka batean bildu eta argitaratu ditugu aurten ere. Nolanahi ere, bertsoen bat aldizkariko lerro hauetara ekarri nahian, Zigor Agirrek alzheimeraren inguruan idatzitako lana hautatu dugu:

### Laino beltzen oroimena

*Laurogei urtez bizitu zara  
alde zaharreko etxean  
herri guztian ezagun eta  
maitea auzo denean  
beti dotore apaintzen zinen  
xarriant zenbiltzan kalean  
baina lehengo irrifar hura  
galdu da iraganean (bis).*

*Orain sei urte tabernan zinen  
betiko buelta ematen  
makil txikia eskuan eta  
txuri arrunta edaten  
azkenengoa eta etxera  
beti errutina baten  
kale erdian aurki zintudan  
“Etxea non dut?” esaten (bis).*

*Hutsune hoi handitasuna  
oroitzapenen azkena  
argi aldiek mantentzen zuten  
genuen itxaropena  
gero kalea arrotz bihurtu  
berria zen jende dena  
taberna hartan gelditua zen  
betiko izan zinena (bis).*

*Orduz geroztik itzala duzu  
eguzki printzaren orde  
mundurik ez da, bizirik ez da  
ezer ulertzeko nekez  
Alzheimeraren indarrak estu  
menperatu zaitu katez  
buruak ez du lanik egiten  
eta gorputzak ere ez (bis).*

*Bide luzea, dena neke  
aurpegia beti hotza  
hankak zintzilik, besoak hilik  
baina taupaka bihotza  
sentimendurik gabe ohean  
ahula da arnas hotza  
zure burua bezala zutaz  
ahaztu da heriotza (bis).*

**Doinua: “Beste bateko inularretan”  
Egilea: Zigor Agirre (1. saria, nagusiak)**

## FERIAN BANATUTAKO SARIK

Urte berriko ferian, Txillarre baserriko Peio Rubiok irabazi zuen **barazki lehiaketa**. Elgoibartarrak 300 euroko saria eskuratu zuen, Alfonso Gonzalez, Ignacio Javier Larrañaga eta Joseba Elosuak osatutako epaimahaiak hala erabakita. Bigarren eta hirugarren postuan, berriz, Itziarko Doniene-Berri baserriko Miriam Arrizabalaga eta Bolungarai baserriko (Berriz) Santos Duñabeitia gelditu ziren, hurrenez hurren.

**Fruitei** dagokienez, lehenengo saria Mutrikuko Sagarmaña baserrira eraman zuen Antonio Iparragirrek -pos-

turik onena aurkezteagatik ere bera saritu zuten-; bigarren saria Urtza Sarrionandiarri (Igorreko Jauregibarri baserria) eman zioten, eta hirugarrena Maria Etxezarretari (Gabiriako Agerre-Berri baserria).

Doniene-Berri baserriak jaso zuen herriko posturik onenari eskainitako saria (150 euro). Eta, bestetik, Arbalitz baserriko Juan M<sup>a</sup> Arrizabalaga ere saritu zuen epaimahaiak, “hobekien zainduta-ko basoa” berea zelakoan.

**Gazta lehiaketako** epaimahaia Jose Ramon Agiriano, Mireia Alonso,

Jesus Artola, Josu Mugerza, Pilar Manterola, Luis M<sup>a</sup> Bengoa eta Xabier Osak osatu zuten. Lehen saria (350 euro) Elgoibarko Mauxitxa baserriko Jesus Ansolari eman zioten; bigarren saria, Mutrikuko Goienetxe baserriari; eta, hirugarrena Idiazabalgo Ondramuino baserriari. Andutzene baserriko M<sup>a</sup> Jesus Gurrutxaga izan zen herriko lehena.

**Debabarrenako Ezti lehiaketa**ko epaimahaiak, bestalde, hiru sari banatu zituen: Jose Luis Azpeitia (140 euro), Fermin Telleria eta Garbiñe Aramendi. Arrasatearrak dira hiru sarituak.



## naturako zenbait istorio: animalien matxinada lasturren

Duela urte asko, 1783ko negu gordineko hila-bete hotzetan, gertakari bitxi bat izan zen Lasturren. Gazteluaitz mendiaren magalean, baserri zahar bat zegoen pagadi dotore batzuen azpian. Baserriaren jabeak Mikelats zuen izena: gizon krudela zen (odolzalea zela ez esatearren), mozkortia, animaliei tratu txarrak ematen zizkien, sentimendurik gabeko gizon bihozgabea zen, eta zigorra zuen armarik gogokoena. Egun osoak ematen zituen bere sukaldeko sofán, edaten, animaliei buruz gaizki-esaka. Zelaiak sastrakaz beteta zeuden, baserria erortzen, hesiak gaizki zainduta, eta animaliak gaizki elikatuta.

Egun batzuk lehenago, beste baserrietako bizilagunek objektu distiratsu bat ikusi zuten behin baino gehiagotan. Objektu hark zerua zeharkatzen zuen gauetan, mendi batetik bestera. Harrituta zeuden bizilagunak, baina zer izan zitekeen susmatzen zuten.

Mari zen, Euskal Herriko mendietan bizi den jainkosa. Bat-batean agertu zen, suzko bola batean bilduta, eta madarikazio baten bitartez, desterratu egin zuen Mikelats. Bere lurretatik kanporatu zuen, ez zitzaiz sekula gehiago animalianganako tratu txarrak egin.

Berehala, animaliak matxinatu egin ziren, ezin zuten gehiago. Behietako batek lasto biltegiko atea apurtu zuen adarkada batez, eta animaliak euren kabuz hasi ziren elikatzen. Mikelatsek galdua zuen nagusitasuna, ordurako ez zegoen torturatzailea, desagertu egin zen. Inoiz ez zen halakorik gertatu. Ezer ez zegoen alde aurretik planifikatuta. Kolpeak zein tratu txarrak jasaten ohituta zeuden animalia haiek ustekabean matxinatu ziren, baserriaren agintea lortu zuten, eta egoera kontrolatu.

Eztanda eta zarata hura entzutean, baserritik gertu bizi ziren bizilagunak zer gertatzen zen ikustera hurbildu ziren. Ezin zuten sinetsi. Ez da posible animaliak elkarrekin hiz-

ketan aritzea, konjuru bat da, sorginduta daude... Mari izan da! Korrika batean handik irten, eta ez ziren baserrietara iritsi arte gelditu, harrituta eta mutu.

Gosea ase ostean, animaliek egin zuten lehenbiziko gauza zera izan zen: elkarrekin baserri inguruetan korrika ibili, gizakirik ezkutatu ote zen egiaztatzeko edo. Gero, baserria itzuli ziren, Mikelatsen erreinu lagarriaren azken aztarnak ezabatzerara. Kortaren mutur batean zegoen txabolan sartu ziren, eta txakurren kateak, Mikelatsek zerriak eta bildotsak zikiratzeko erabili ohi zituen laban krudelak... guztia putzu batera jaurti zuten. Pozez salto egin zuten animalia guztiak. Denboratarte laburrean, Mikelatsen agintea gogorarazi zieziaiekeen oro suntsitu zuten. Gauean festa bat antolatu zuten: kantuan aritu ziren, baita dantzan ere, eta gero, gaua pasatzeko prestatu, eta ordura arte inoiz ez bezala egin zuten lo guztiak.

Egusentian esnatu ziren, beti bezala, eta gertatutakoaz pozarren oroituta, elkarrekin jo zuten guztiak zelaira. Handik gertu bazegoen muino bat, eta bertatik baserri guztia kontrola zitekeen. Tontorrera azkar-azkar igo, eta bailarari begira egon ziren goizeko egun argitan. Bai! Euren zen, ikus zezaiketen guztia zen euren.

Iraultza erabat arrakastatsua izan zen, eta etorkizunera begira ere, bazituzten hainbat plan: irakurtzen eta ikasten hasi nahi zuten. Hala eraikiko zuten autogestio sistema bat, animalia guztientzako berdintasun, eskubide eta betebeharrekin.

Marik ekaitzak sortzen ditu, eta lehortek edota euri zen txingor zaparrada bortitzak eragiteko gai ere bada. Era berean, injustiziaren eta boterean daudenen aurka egiteko indarra ere badauka. Halakoxea da gure Mari, Euskal Herriko mendietako jainkosa.

**Bittor Arizmendiarieta**





# BERRIKETAN GAZTEA

2012ko urtarrila  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.

## euskararen eguna



Urte berriarekin batera, jendeak asmo eta proiektu berriak izaten ditu buruan. Deban agian ahaztua izango da abenduaren 3an Euskararen Eguna izan zela, baina guk ez dugu ahaztuta, eta jendea euskararen inguruan konpromisoak hartzea bultzatzen dugu. Institutuan, ostiralean ospatu zen. Horretarako, gela bakoitzak ekintza desberdinak eraman zituen aurrera:

Adibidez, 1A eta 4B gelakoek Matt Ingeleseko irakasleari euskara irakasteko aukera izan zuten; 1B-koek munduko mapan herrialdeak eta hizkuntzak kokatzen, eta Euskal Etxeak munduan zehar non dauden bilatzen jardun zuten; 2A-ko ikasleak, erdarakada eta euskarakadekin jolasean aritu ziren; 2B eta 2C-koek, euskal kantak entzun eta aztertu zituzten; 3A eta 3B gelakoek Uxue Alberdi idazle, bertsolari eta kazetariarekin solasaldia izan zuten; 4A eta 4C-ko ikasleak "Zifrak eta letrak" jokoan aritu ziren;

4A eta 4B-koek, beraiek aukeratutako euskal abestiei hutsuneak sortu ondoren, abestiak entzunez hutsune haiek betetzen aritu ziren. Eta azkenik, ikasle guztien artean eskolako paretak apaindu genituen: batetik, plastikan ikasleek egindako kartelarekin, eta bestetik, historian zehar garrantzia izan duten, baina zoritxarrez oso entzunak ez diren emakumeen informazio eta argazkiekin, hala nola Juana II Labrit, Todda Azenariz, eta gaur egungo Maialen Lujanbio. Emakume horiek guztiak, hain justu, Eusko Ikaskuntzak omendu zituen Euskararen Egunean.

Oso egun polita izan zen, eta emaitzak positiboak izan ziren. Baina gogorazi nahi dugu ez dela urteko egun batean geratu behar. Izan ere, **hizkuntza bat ez da galtzen ez dakienak ikasten ez duelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik.**





# elkarriketa

Abenduaren 2an, Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria gure ikastetxera etorri zen *Aulki-jokoa* izeneko bere liburuari buruz hitz egitera. Beste liburu bat ere idatzi du, *Aulki bat elurretan*. Hitzaldia egia eta gezurra esateko bideen berri emanez hasi zuen:

**“Kazetariak egia esaten dituzte gezur bat kontatzeko, eta idazleok gezurrak kontatzen ditugu egia kontatzeko”**



**“Aulki-jokoa” batetik, eta “Aulki bat elurretan” bestetik. Zergatik erabiltzen dituzu hainbeste aulki zure liburuetan?**

Kasualitate bat da. Hasieran “11 makila” deitu behar zen, baina gero aulki-jokoa metaforak indarra hartu zuen.

**Zertan inspiratu zinen “Aulki-jokoa” liburua egiteko?**

Getariako nire aitona-amonengan eta beraien koadrilarengan.

**Nola bururatu zitzaizun nobela hainbat denboratan kontatzea?**

Bada, Getariako aitona-amonen ikuspegia nuelako, eta pertsona haiek islatu nahi nituelako: beraien haurtzaroan, gaztaroan eta zahartzaroan.

**Hain gaztea izanda, bi liburu dituzu. Zenbat urtere-**

**kin hasi zinen idazten? Eta bertsolaritzan? Nondik etorri zaizu sormen hori?**

Idazten, denak bezala hasi nintzen: etxeko lanak egitean hasi nintzen, 6 urterekin, eta profesionalki Bilbon karrera egiten ari nintzenean. Bertsotan 22 urterekin hasi nintzen. Sormena nondik datorkidan? Bada, nire sormenarekin gauza askok dute zerikusia, etxean gurasoek asko irakurtzen zuten, ipuinak kontatzen zizkiguten... baina nire anaia, adibidez, biologoa da, eta etxe berean bizi ginen.

**Zer desberdintasun dago bertsolaritza eta idazle lanen artean? Zer nahiago duzu? Zergatik?**

Justu kontrakoak dira, bata bat-batean asmatu behar da jende askoren aurrean, eta bestea, berriz, bakarrik zaudela, lasaitasunean, nahi duzun denbora guztiarekin. Nik bi kontuak ditut gogoko, nire bizitzako momentu desberdinak betetzen dituzte.



**INKESTA**

## GABONAK ETA URTE BERRIA

Aurten ere iritsi dira Gabonak eta urte berria; horregatik, gai honi buruzko galdera batzuk egin ditugu:

- 1.- Non ospatzen dituzu Gabonak? Norekin?
- 2.- Zer nahiago duzu, Olentzero edo Erregeak? Zergatik?
- 3.- Zer eskatzen diezu?
- 4.- Zer nahiago duzu, dirua edo opariak?
- 5.- Nolako espero duzu urte berria?



**Cristina Lahore:**

- 1.- Deban, familiarekin.
- 2.- Biak berdin zaizkit, opariak bietan jasotzen ditudalako.
- 3.- Denetik eskatzen dut pixka bat, berdin zait-eta.
- 4.- Ez dakit.
- 5.- 2011 bezalakoa, edo hobea.



**Unai Salegi:**

- 1.- Itziarren, familiarekin.
- 2.- Biak berdin, jai dugulako bata zein besteak datozen egunetan.
- 3.- Ez dut ezer eskatzen, ekartzen didatenarekin konformatzen naiz.
- 4.- Berdin zait.
- 5.- Normala izatea espero dut.



**Malen Turrillas:**

- 1.- Deban, familiarekin.
- 2.- Olentzero nahiago, euskalduna delako.
- 3.- Arropa eta dirua eskatzen ditut.
- 4.- Berdin zait.
- 5.- Aurtengoa baino hobea izatea espero dut.



**Ibon Deba:**

- 1.- Deban ospatzen ditut, familiarekin.
- 2.- Biak, berdin gustatzen zaizkidalako.
- 3.- Diru asko.
- 4.- Opariak.
- 5.- Normala izatea eskatzen dut.



**Alex Martija:**

- 1.- Itziarren, familiarekin.
- 2.- Olentzero nahiago dut, lehena izaten delako.
- 3.- Ekartzen didatena.
- 4.- Dirua nahiago dut.
- 5.- Urte ona izatea espero dut.



**Lara Loiola:**

- 1.- Deban, familiarekin.
- 2.- Erregeak nahiago ditut, opari gehiago ekartzen dizkidatelako.
- 3.- Dirua eta ekartzen didatena.
- 4.- Berdin zait.
- 5.- Urte hobea izatea espero dut.



**Idoia del Corte:**

- 1.- Deban, familiarekin.
- 2.- Erregeak. Opari gehiago ekartzen dizkidatelako.
- 3.- Ez dakit, sorpresa.
- 4.- Opariak.
- 5.- Aurtengoa baino hobea izatea espero dut.



**Naia Orbegozo:**

- 1.- Eibarren, familiarekin.
- 2.- Biak gustatzen zaizkit. Opariak ekartzen dituztelako.
- 3.- Arropa eskatzen dut.
- 4.- Dirua.
- 5.- Aurtengoa bezalakoa izatea espero dut.



**Nora Mandiola:**

- 1.- Eibarren, familiarekin.
- 2.- Olentzero nahiago dut. Opari gehiago ekartzen dizkidalako.
- 3.- Arropa eskatzen dut.
- 4.- Berdin zait.
- 5.- Aurtengoa bezalakoa izatea espero dut.



**Alex Zarrua:**

- 1.- Deban, familiarekin.
- 2.- Olentzero nahiago dut, euskalduna delako.
- 3.- Nik dirua eskatzen dut.
- 4.- Dirua.
- 5.- Aurtengoa bezalakoa izatea espero dut.

**GAILEAK: NEREA AGIRREGABINA ETA LEIRE ALBERDI**

## HERRI-KIROLAK



Aurten ere (2011n) Herri Kirolak saioak ospatu dira ikastetxean eta, azken urteetan bezala, 3. DBH eta 4. DBHko ikasle batzuek finalera pasatzea lortu zuten, Elgoibarko ikasleen aurka jokatu eta irabazi ondoren. Finala Hernanin jokatu zen, hainbat herritako ikasleen artean. Azaroan izan zen, Merkatu plazan. Oso ondo jokatu arren, ez ginen lehenengo hiru postuetan sartu. Hala ere, primeran pasatu genuen! Eta, ez al da ba hori garrantzitsuena?



# DenBord-pasaK

## TXISTEAK

-Nola esaten da txineraz emakumea hondartzan?

Kontxi Kontxan

-Nola esaten da portugesez abeslaria?

Mikel Lisboa

-Nola esaten da andaluzez begetarianoa?

Aza-jale

-Nola esaten da arabieraz hamaiketakoa?

Hamēn nēnēn

-Zein da gose gutxien pasatzen duen Asiako herrialdea?

Horzari (horzari)

-Nola esaten da andaluzez saskibaloi jokalaria?

Hanka luzia

-Nola esaten da andaluzez armiarma?

Har-mi-ma!

-Nola esaten da japonieraz esnea?

Kaiku



Iturria: Kike Amonarizen "Txorakikeriak"

## SUDOKUA

			9	7	4	1	3
5		1	6				
9	3	7		4	2		
	2	8	1				
		3	7	8			6
1			2	4	3		8
	9		8				2
			2		8	9	4
8		2	4	3			

### LAGUNTZAILEAK:



### BABESLEAK:



Debako Udala



### PRENTSA TALERRA 2011-2012

Nerea Agirregabiria  
Leire Alberdi  
Sara Anton  
Ainhoa Azkarate



Ane Baroja  
Alaitz Escudero  
Ena Esmoris

Koordinatzailea: Kontxi Bengoetxea

# Nabigazioak XV-XVII. mendeetan Deban izan zuen garrantzia liburu batean islatu dute Patxi Aldabaldetrecu Bekaren irabazleek

Jose Antonio Azpiazu eta Javier Elorzaren liburua “Deba Bilduma”-ren bosgarren alea da. Lana burutzeko 4.000 euroko saria eman zien Roque Aldabaldetrecuk, Felix Irigoyenek eta Jose Maria Izagag osatutako epaimahaiak

Ander Salegi



**FITXA**

- Egileak: Jose Antonio Azpiazu eta Javier Elorza.
- Argitaratzailea: Debako Ostolaza Kultur Elkarte.
- Hizkuntza: Gaztelera.
- Argazkiak: Javi Castro eta José Valderrey.
- Maketazioa: Kaioa A.S.P.
- Ale kopurua: 250.
- Salneurria: 15 euro.

“Deba, una villa de vocación marinera y mercantil (siglos XV-XVII)”. Horixe da Patxi Aldabaldetrecu ikertzaile eta idazle debarra zenaren omenez Debako Ostolaza Kultur Elkarteak antolatutako bekaren ondorioz argitaratu den bosgarren lana.

Liburua –gazteleraz idatzia– abenduaren 29an aurkeztu zen, Kultur Elkartean, eta bertan Jose Antonio Azpiazu eta Javier Elorza egileek proiektuaren mamia azaldu zuten, baita gaiarekin lotutako hainbat anekdota kontatu ere.

Nabigazioak herria sortu, egonkortu eta garatzeko orduan izan zuen “hil ala biziko garrantzia” ezagutaraztea du

helburu argitalpenak, eta XV. mendearen lehen erditik XVII. mendearen hasierako hamarkadetara arteko denbora-tarteari egiten dio aipamen.

Liburuaren lehenengo sei kapituluetan, Debako marinel- eta merkataritza-jarduna aztertu dute egileek, bi alderdi edo ikuspegitik: batetik, ibaiaren behealdeko, Altzola-Deba zatiko, joan-etorria aztertzen da, ibaia Gaztela eta Europako beste nazioetarako salgaien sarra eta irteera gune garrantzitsua izan zela gogoratuz. Bigarren ikuspegiak, berriz, itsasoa bera du hizpide: orduko debarrek Sizilia, Ternua, Amerika edo Molukak

moduko paraje ezezagun eta urrunekotara iristeko baliatu zuten itsasoa, nabigazio kontuetan “jakituria eta trebetasun apartak” erakutsiz, nahiz Mediterraneo itsasoa, nahiz gainontzeko itsas-bideetan.

Zazpigarren kapituluak gizarte-esparrua du aztergai, hiribilduaren sorrerako garaietatik Debako jendartearen erreferente izandako eta herrian erro sendoak dituzten Irarrazabal eta Sasiola familiak bereziki. Eta, besteak beste, liburuaren bukaeran testuan aipatutako pertsona eta toki guztien toponimia eta onomastika aurkibideak sartu dituzte.

## Rexu Arakistainek hirugarren saria lortu du Azkoitian antolatzen den Bizenta Mogel ipuin lehiaketan

“Jon eta Txuri” izenburuko lanarekin Bizenta Mogel XXX. ipuin lehiaketako hirugarren saria Debara ekarri du Rexu Arakistainek.

Euskarazko ipuin lehiaketa hori Azkoitiko Kultur Elkarteak antolatzen du, Udalaren laguntzarekin. Parte-hartzaileek urrian aurkeztu zituzten euren lanak, eta epaimahaiak azaroaren 19an jakinarazi zituen irabazleen izenak.

Sari banaketa ekitaldia, berriz, abenduaren 23an egin zen. Bertan, 200

euroko saria eta oroigarria eskuratu zituen Rexuk eta, gainontzeko irabazleek egin bezala, hitza hartu zuen gero saria eskertu ahal izateko. **Zorionik beroena, Rexu!!**

Idazteko zaletasuna eta trebezia lehendik ere erakutsiak zituen. Besteak beste, “Ane eta bere arranoa” ipuinarekin Debako Iratxo Ezkutuak sariketa irabazi zuen 2006an, eta “Deba” aldizkarian ere argitaratu ohi dituzte bere euskarazko idatziak.



**Seven Clovers**  
Irish pub  
Gozatu gure garagardoa  
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

**Bar LOREA**  
“Orotariko tartak etxean eginak”  
Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



## 380 parte-hartzaile III. San Silbestrean



Ander Salegi



Hirugarren urtez jarraian, erantzun ezin hobia eman zitzaion San Silbestre lasterketari. Deba-Itziar Xtreme Triatloi taldeak Debako Udalaren laguntzarekin antolatutako hitzorduan 380 parte-hartzaile bildu ziren (244 nagusi eta 136 gaztetxo). Igon Mantzisor izan zen garaile gizonezkoetan, eta Estibaliz Etxaburu mutrikuarra, berriz, emakumezkoetan. Aurtengo lasterketan oroitzapenerako tarterik ere izan zen; triatloi taldeko kide izandako eta berriki zendutako Manuel Mateos izan zuten gogoan –horren lekuko dugu goiko argazkia–.

Bestetik, urtea agurtzeko hondartzan bainua hartzea animatu zirenak ere ez ziren gutxi izan. Taldeko argazki dotorea atera zieten haiei ere!

### Osa anaien aldeko taldea desegin egin dute

Pasa den abenduan desegin egin zuten 1994. urtean sortutako Osa Anaiak Peña. Bi anaiek –Aitor (1973) eta Unai (1975)– 2006an amaitu zuten euren ibilbidea txirrindularitza profesionalean eta, hortaz, haien alde sortutako taldearen jarduna bera ere etenda egon da nolabait. Horrek

eragin du taldea, “penaz bada ere”, desegitea. Hamaika irteera eta ekimen burutu dituzte euren ibilbidean, eta elkarteak 300dik gora bazkide izan ditu; Debakoak ez ezik, Eibar, Bilbo, Bergara, Katalunia, Madril edo Belgikakoak ere bazeuden horien artean.

### Iñaki Lopategi, garaile idi-probetan



Ander Salegi

Urtarrilaren 1etik 9ra egindako urteberriko XXXVI. idi-probetan, Iñaki Lopategi (Billela) izan zen garaile. Bigarren eta hirugarren postuan Biorenabari (Laukiz) eta Rafa Alegria (Bermeo) gelditu ziren –Erreten itziartarra, berriz, zortzigarren sailkatu zen–.

### Ping-pong txapelkun berriak



Udazkenean zehar ping-pong txapelketa jokatu dute 5. eta 6. mailako ikasleek. Kanporaketa desberdinak burutuz, partidak 12 tantora jokatu dira. Parte-hartze handia izan da, 40tik gora neska eta beste hainbeste mutil gogotsu aritu baitira jolas-orduetan jokatu diren partidetan. Emaitza estuak eta partida bikainak ikusi ahal izan dira, ikasleek eurek epaitutako partidetan.



Azken kanporaketek txapelkun hauek eman dituzte: **\*Neskak:** Ane Arrizabalaga, Ane Amutxastegi, Itzale Laka eta Ane Agirregabiria. **\*Mutilak:** Gorka Prieto, Beñat Escudero, Ibai Salegi eta Joseba Beitia.

Oporretatik bueltan 3. eta 4. mailakoak hasiko dira. Bitartean, ondo pasa!!

Luzaro L.H.I. (Kirol arduradunak)



## Harrera bero-beroa Gabon eguneko bisitariei



Ander Salegi

Gabon kantak abestuz egin zieten ongiertoria Olentzero eta Mari Domingiri plaza zaharrean. Eguraldia eskas samarra zela eta, aurreikusita zegoen kalejiraren ibilbidea moldatu eta Aldats pilotalekuan hartu zuten aterpe Gabon eguneko protagonista nagusiek. Egunak aurrera egin ahala, txikien irribarre eta emozioak lagunduta akaso, eguraldiak berak ere hobera egin zuen. Kalejira plaza berrira iritsi eta, bertan, haurrek Olentzero eta

Mari Domingirekin solasean aritzeko aukera izan zuten. Bide batez, noski, hainbatek etxetik idatzita ekarritako gutunak ere eman zizkieten.

Jendetza izugarria bildu zen hitzorduan, eta salda eta txorizoaz gozatzeko aukera ere izan zuten. Hori guztia ez litzateke posible izango, dena den, jendearen borondateari eta guztien elkarlarnari esker ez balitz. Beraz, eskerrik asko Goaz, Luzaro, guraso eta norbanakoei...!

## Ernioko kobazulora Gazte Asanbladaren urtemugan



Abenduaren 10ean Debatik Ernioko kobazulora egindako irteeraren argazkia duzue hemen goikoa. Txangoa Gazte Asanbladaren XI. urtemugaren harira antolatutako ekimena izan zen, eta

Akerzulo espeleologia taldearen laguntza izan zuten parte-hartzaileek. Gure inguruetako parajeez gozatzeko aukera izan ondoren, baba-jana egin zuten Gaztetxean indarrak berreskuratutako ahal izateko.

## Joseba Etxeberriak irabazi du Animadeba jaialdiko gortina lehiaketa

Animadeba 2012 animaziozko zinema jaialdirako gortina lehiaketan, epaimahaiak sari nagusia Joseba Etxeberria elgoibartarrari eman zion, "Animadeba" lanarengatik. Aritz Trueba donostiarrak aurkeztutako "Txipi eta Roi" izenburuko lanari, berriz, aipamen berezia egin zioten. Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak Youtuben, Animadebaren kanalean, daude ikusgai ([www.youtube.com/user/AnimaDeba?feature=watch](http://www.youtube.com/user/AnimaDeba?feature=watch)).

Animadebaren laugarren edizioa izan da aurtengoa, eta ekimena aurreko urteetan baino jendetsua goa izan dela nabarmendu dute arduradunek. Beraz, aurtengoa ere jaialdia antolatzea aurreikusten dute.



## 5.000 bisitari baino gehiago Geoparkean

Iazko Aste Santuan abiatutako bisita gidatuei harrera polita egin zaiela azaldu dute Euskal Kostaldeko Geoparkeko arduradunek. Haiek emandako datuen arabera, hain zuzen, ordutik hona 5.000 bisitaritik gora jaso dituzte (gehienak euskal herritarrik, eta beste asko Bartzelona zein Madrilgoak). Bestetik, [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) web orriak 25.300 bisita izan ditu zortzi hilabeteotan.

  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

  
Nº. 379


Higiezinaren Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezinaren Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

  
Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)





### Agenda

#### Urtarrilak 20-21-22

-San Sebastian deunaren jaiak Elorriagan.

#### Otsailak 3, ostirala

-San Blas eguna.

#### Otsailak 4, larunbata

-Santa Ageda bezpera.

#### Otsailak 10, ostirala

-20:30ean. **Kafe-tertulia saioa**, Lasturko tabernan. Deustuko unibertsitateko Joxe Arregi irakasleak hitzaldia eskainiko du "Euskal kultura eta fedea" izenburupean. Gurasoentzat eta gazteentzat zuzendutako saioa izango da.

-21:00etan. **Bertso afaria**, Txomin jatetxean. Jon Maia eta Maialen Lujanbio. Erreserbak: 649 14 40 65 eta 943 19 16 60.

#### Otsailak 19, igandea

-8:30ean. **Mendi irteera**: Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatutako irteera: Urkiola-Urkiolagirre-Besaide-Udala.

### Lehiaketak

-Nontzeberri.com kultura webguneak **Nontzefilmak Zinema eta Animazioko Film Laburren Lehiaketa on-line** jarri du martxan. Nahi duenak parte har dezake lehiaketan, jaioterri eta bizilekua direnak direla, eta nahi adina lan aurkez ditzake. Martxoaren 8an amaituko da lanak aurkezteko epea. Oinarriak eta informazio gehiago: <http://www.nontzeberri.com/NFK12/>.

-Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak antolatutako **Euskal Herri mailako Euskarazko Palindromo lehiaketa**ren bigarren edizioa (aurretik atzera zein atzekoz aurrera berdin irakurtzen diren esaldiak dira palindromoak). Otsailaren 15ean amaituko da proposamenak aurkezteko epea. Oinarriak: [www.aedelkartea.com](http://www.aedelkartea.com).

### Erakusketak Turismo Bulegoan

-**Eibarko Klub Deportiboko argazki taldearen** erakusketa, Turismo Bulegoan. Urtarrilaren 20tik 29a bitarte (otsailaren 18tik 27ra arte ere beste erakusketa bat izango dute ikusgai).

-**Jose Luis Irigoien**en argazki

erakusketa, Turismo Bulegoan. Otsailaren 5etik 12a bitarte.

\***Turismo Bulegoko ordutegia**: Astelehenetik ostegunera: 10:00-14:00; ostiral eta larunbatetan: 10:00-14:00/17:00-19:30; igande eta jaiegunetan: 10:00-14:00.

### Ikastaroak

-**EGUR TAILA: Zuriñe Gredilak** egur taila tailerrak eskaintzen ditu ikasturtean zehar. Hilabetero egongo da horietan izena emateko aukera, eta talde bakoitzean zortzi lagun arituko dira gehienez. Klaseak astean bitan (3 ordu astean) izango dira. Informazio gehiago: 666 72 03 13 telefonoan edo Kalbeton Zumardiko 5.ean (9:30-13:00 eta 16:30-19:00).

-**KZguneak** ikastaro ugari eskainiko ditu urtarrean (goizez) eta otsailean (arratsaldez): Internet+e-Administrazioa, sare sozialak, Blogger, Jaycut, Metaposta I eta II, iGoogle, Flickr... Izena emateko, kontsultatu [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) ataria edo deitu zuzenean 943 02 94 40 zenbakira.

### Hitzordu bereziak

-**BERTSO EGUNA, Donostian**. Urtarrilaren 28an Donostian ospatuko den Bertso Egunerako sarrerak salgai daude [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) atarian. 2012an Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak sortu zela 25 urte beteko dira eta urteurren hori izango da Bertso Egunaren ardatza. Egitarauari 12:00etan ekingo diote, Donostiako Alde Zaharrean. Ekitaldi nagusia, berriz, 18:00etan izango da Kursaal.

-**"Jolasa baino gehiago"**, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak antolatutako jardunaldia. Otsailaren 2an eta 3an ospatuko da, Durangoko Landako Elkartegian, eta XXI. mendeko euskaldunon elkarrekin haur eta gazte esparruaren markoa definitzea du helburu jardunaldiak. Urtarrilaren 27an amaituko da izena emateko epea. Hitzorduaren inguruko informazio gehiago: [www.topagunea.org](http://www.topagunea.org).



**DEBAKO  
BOTIKAK**

### GOARDIA 24 ORDUZ

ZALDUEGI: TEL. 669 262 201  
BURGOA ZUAZO: TEL. 667 338 890

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat gardian.

-Debako botikak itxita dauden bitartean, eta igandetan, eguerdiko ordutegian guardiako farmazia bat zabalik

Deba, Mutriku, Soraluze edo Elgoibarren.

Larunbat goizetan beti bat irekita:  
9:30 - 13:30

### OHARRA:

**Gabeko farmazia zerbitzua Elgoibarrera** Deba, Mendaro, Mutriku eta Soraluzeke zaintzako farmazia Elgoibarren zentralizatuko da aurtan. Gipuzkoako Botiken Eskola Ofizialak hala eskatuta eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak aginduta egin da aldaketa. Horrela, gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara farmaziara jo behar dutenek Elgoibarrera joan beharko dute.



**ABEL**

**Kristaldegia**

Mota guztietako kristalak  
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: [abel-kristal@euskalnet.net](mailto:abel-kristal@euskalnet.net)

JAR EZAZU ZURE  
PUBLIZITATEA  
ALDIZKARIAN!

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)



**haizea**  
estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



# ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



## Zuriñe Gredilla Kareaga

Kalbeton Zumardia, 5  
Tel.: 666 720 313  
txirbila@gmail.com  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



## ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

## ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea - 20820 DEBA  
943 029 186



## URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

## LENTZERIA



Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



# kutxa

zugandik zugana



JANTZIDENDA  
LERSUNDI KALEA, 37  
20820 DEBA



## BURU - ZURI Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan fragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



## Kafetegia



Foruen Plaza  
Tel.: 943 191 035  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

## Calbeton



JATETXEA

Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

## L.A.

## LARRAMENDI ANIAK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)





DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

### Matrikula zabalik!

#### Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak.
- Autoikaskuntza.

#### Azterketa prestaketa

- Perfilak (IVAP, Osakidetza)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4.mailak
- EGA

Matrikulaldia otsailaren 10era arte

Diru-laguntzak eta bekak. Informa zaitez euskaltegian!

## Urte Berri On!!

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Ifar kalea 12,

Telefonoa: 943 192236

e-posta: debabe.deba@telefonica.net



EUSKALTEGIS MUNICIPALES  
EUSKARAREN  
IRAKASKUNTZARAKO  
ENTITATE OFIZIALA

